

# “emakumea eta hitza” emakume artisten erakusketa

BERGARA 2023. AROZTEGI ARETOA

Erakusketa • Exposición

Martxoaren 3tik 19ra • Del 3 al 19 de marzo

ERAKUSKETA EXPOSICIÓN  
Emakumea eta hitza.  
Emakume artisten erakusketa.

ANTOLATZAILEAK ORGANIZADORAS  
Emakume artistak eta Martxanterak.

ESKERRAK AGRADECIMIENTO  
Bergarako Udala Ayuntamiento de Bergara

INPRIMAKETA-EDIZIOA IMPRESIÓN-EDICIÓN  
K3 Inprimategia

ARGITARAPENA EDICIÓN  
Bergarako Udala Ayuntamiento de Bergara

LEGE GORDAILUA DEPÓSITO LEGAL  
LG D 00159-2023

**“Emakumea eta hitza”**

PARTE-HARTZAILEAK:

Alicia García Tartas

Mariñe Jauregi

Ana Abajo

Arantzazu Arregi Uriarte

Cecilia Dulanto Arriola

Maialen Lopez

Espe

Idoia Etxarri

Justina Elexpuru Arregui

Kontxi Idigoras

Maite Azkargorta

Maria Cruz Andueza

Marikarmen Laskurain

Mireia Gonzalez

Nekane Bernal Julian

Nerea Kerejeta

Usoa Mendikute Barrena

Zu-Frida

Amaia Santamaria Andres

Maddi Martin Olaskoaga

Marilu Unzurraga

Lierni Narbaiza

Itziar Murgizu

Mari Paz Alustiza

Ione Telleria

# ALICIA GARCIA

## ARTEAREN HITZAK

Hitz gordinak, xumeak, indartsuak...

Nire kobazulotik modu ezberdinetan jaiotzen dira, forma diferenteez, mozorrotuaz.




Sabeletik irteten diren hitzak...

Oihu eztanda baten dimentsioak hartu ditu... poza, beldurra, edertasuna, mutuaren hitza.

Denetik dago nire kobazuloan, baina, barne barnetik sortzen diren hitzak, "Forma" bidez kanporatzea...

Arte bihurtzen da.

Garbiñe Sarasketa




# AMAIA SANTAMARIA ANDRES



Produktu - Agortua

ZaUrgarri-agertzea-AUSARdia-keinuA-daj=https://\_J\_a\_K\_i\_z\_u...

An abstract painting with a warm, orange-toned background. A central figure, possibly a face, is rendered in a stylized, fragmented manner with various colors like yellow, pink, and red. The figure's features are partially obscured by overlapping lines and shapes. In the bottom left corner, there is some faint, handwritten text in a reddish-brown color. The main text is overlaid in large, bold, black letters.

hitzek forma asko  
dituzte, hauek, nor  
garen adieraziz  
mugitzen,  
baina, hitza beti  
hitz eta gu...

ana abajo

# ARANTZAZU ARREGI URIARTE

INSPIRAZIOA eta ARTELANA (zortziko txikian)

Hementxe daukazue  
deklarazioa  
Handitzen ari baitzait  
gaur frustazioa  
Hau dut hamaikagarren  
iterazioa  
Gaur ere ez da etorri  
INSPIRAZIOA

Inspiratu gaitezen  
egin behar da lana  
Ezin da margolana  
egin erdibana  
Deklarazio honekin  
hartu dugu fama  
Izardiz bete dugu  
gure ARTELANA



**Aiguamotx**




**Igartubeiti baserria**

BASERRIA (zortziko handian)

Eguneroko bizi egitura  
artean ez da berria  
Izan ere, holakoz josita  
daukagu Euskal Herria  
Gaur egun pisu eta dorreetan  
etxearen oinarria  
Gure bizimoduan euskarri



**CECILIA DULANTO ARRIOLA**



# ESPE

Emakumea naiz, ni neu naiz.  
Bakarra naiz, ezberdina naiz, indartsua naiz.

**Nire bizitza nirea da. nire bizitza  
bakarra da.**

*Nire / gure bide honetan emakume guztiak behar dira.  
Emakume/gizakume guztiak behar dira eta hauen indarrak.*

**Elkarrekin indartsuago gara.**

Feminismoa zerbait bada, kolektiboa da.

Izan feminista, zugatik eta emakume  
guztiengatik.

Hitz egin eta hitzekin egin. **Hitz anitz.**



## NEKANE BERNAL JULIAN



Zer ikusten duzu ispilu aurrean?

Bai, zu zara.

Begiratu, polita zara, atera irribarre bat zure islari.

Maitatu ezazu.

# ZU-FRIDA

Hiriburuak



Urrezko kaiolak: apurtzeko eginak

# JUSTINA ELEXPURU

Kaixo, begira zauden horri:

Ez saiatu inongo misterio bila, ez,  
zuk zeuk ikusten duzun hori besterik ez da eta.  
Disfrutatu gustuko baduzu.



# KONTXI IDIGORAS

Artez eta kolorez nire herria



Artez eta kolorez nire herria

# MADDI MARTIN OLASKOAGA



Amonaren (biz)hitza

# MAITE AZKARGORTA

## OROITZAPENAK

Bere amonarena izandako amantala erabiltzen zuen.  
Txuri-txuria, erosi berri bezala.  
Hamaika aldiz garbitu eta lisatu ostean,  
papera bezain fina eta urratua.  
Sukaldera sartzen nintzen bakoitzean,  
han aurkitzen nuen.  
Bere arima behin baino gehiagotan sukaldatu zuela esango nuke.  
Jaki goxo haietan nabaritzen nuen.  
Oso ondo ezagutzen nuen ama.  
Janariaren zaporeak ere bai, gatzaren proportzio handietan, triste zegoenean.  
Azukre gehiegi, alai sentitzen zenean.  
Osagai denak nahasten zituen esku indartsuekin,  
eta bihotz samurrekin.  
Errezetetan eskuak, arima eta bihotza jartzen zituen.  
Amaren osagai den-denak eduki nahiko nituzke.

Begoña Caballero



## ETXEKOA

Txikia nintzenean,  
lapiko barruan zegoena ikusi ezin nuenean,  
amari jateko zer zegoen galdetzen nion.  
Soberan nekien usain goxo hura porrusaldarena zela,  
baina usaina baino goxoagoak ziren bere hitzak,  
entzun nahi nituenak.  
Behin eta berriz.  
Emozioz betetako hitzak ziren.  
Bionak, gureak, etxeakoak. Maitasunezkoak.  
Eta nik ama maite nuela sentitzen nuen.  
Porru egosien usaina sentitzen nuen bezala.

Begoña Caballero





# MARI CARMEN LASCURAIN LOIDI



Emakumeen eguna egunero izan beharko litzateke. Inoiz ez ditugu ahaztu behar beraiek dituzten baloreak, gure etxeetan, gure gizartean, gure bizitzan.

Bizitza ikusteko eta bizitzeko beste modu bat badago; gauzak begiratzeko beste modu bat, geure burua ikusteko beste modu bat, guztiz geurea, maitasunez, gizatasunez. Gure ikuspegitik, emakumeon ikuspegitik.

## IDOIA ETXARRI LIZARRALDE



Han, urrunean  
trenbideko bazter horretan,  
baso barruan,  
behe-laino artean,  
ikusi zintudan,  
zuriz jantzita.

Ile luzea,  
oinutsik hankak,  
loreak batzen  
pozik ta kantak,  
neska aratza...

Laia Altube

**MARIKRUZ ANDUEZA ARANBURU**



# MAIALEN LOPEZ



Eguzkia egunez, lorea gaez.

# NEREA KEREJETA

## LOKARRIAK

Lokarri batek  
zu eta ni

lotu gaitu.

Hasieran  
lokarri motza,  
estua eta  
indartsua.

Zu eta ni  
batera

zu ni zinen,  
ni zu nintzen.

Gero  
lokarria luzatu zen,  
gu  
bereiztuz.

Zu zinen.  
Ni nintzen.

Azkenik,  
hauskorra, finegia eta  
ikusezina.

Zu hura  
izatera  
iritsiko ote?

Izaskun Etxebeste



Izan zirelako gara

## USOA MENDIKUTE



**LIBE.** Tinta paperean, 40x30cm.



**MAREN.** Tinta paperean, 40x30cm.

# MIREIA GONZALEZ

Ez gara panpinak, ez gara objektu sexualak.



# MARIÑE JAUREGI

## AMAREN BESOAK

Amaren besoetan oroitzen dut neure burua, amaren beso horietan.

Hain urrunekoak senti ditzakedan beso horietan, hain ahaztuak jada, hain maitatuak, hain ukituak eta hain sentituak nituen beso haietan.

Guztia besoetan hasi zitekeela uler dezaket; babesean, besarkatzean, beso haien ukitua nireekin korapilatzean.

Korapilorantz barneratu nintzen, sorbalden azken muturretik hasi eta beherantz abiatuz, besoetan barna, basoen gisan korapilatuak dauden sasi madarikatu haien gisan, nire korapilo propioetarantz labainduz.

Beherantz nindoan, ukalondo ertzean geratuz. Besoen oroimenean. Eskuineko besoan zain urdina gehiago nabaritzen zitzaiola oroitzen dut, neure hatza bertan ipiniz, zainaren ibilbidea jarraituz neurekiko. Beherantz jo nuen orduan, orbainetik beherantz zainen ukiturantz, zainen bidegurutzeetarantz.

Orduak igarotzen nituen orbainari begira, zimurtuz, ertzean ukituz, bakarrik senti zitekeen izakitzat jotzen nuen, uler nazakeen izaki arrotz bat izango bailitzan. Amaren besora salto eginda iritsi zen urruneko izaki galduren bat; bera babes zitekeen izaki bat, bere alboan beti, bere besoen zaindari, bere bidelaguna bailitzan.

Borobiltzen saiatu nintzen orbaina, formen ingerada zehazteko asmoz.

Begiak ireki nituen, ezerezera begiratuz. "Orbain hura zen ama"-nioen neurekiko. Orbain hura zen amaren isla, amaren izatearen gorpuztea.

Orbainak ezkututzen zuen forma iheskorra urrun oroitzen dut, begiak ixten ditut indarrez, sudurra zimurtuz, gogor oroitu nahi baitut orbain hura; agian, ilunpean, begiak indarrez ixtean agertuko baita; han, flotatzen, izar bat bailitzan, gorputz arrotz baten antzera, hegan.

Orbain hura, hain maitatua nuen izaki hura.

Saioa Arregi





**MARILU UNZURRAGA**



# LIERNI NARBAIZA

Pintura poesia mutua da; poesia pintura itsua da.



## ESKERTZA

Eskerrik asko erakusketa honetan parte hartzen duten artista guztiei, eta beste urte batez proiektu polit hau aurrera ateratzea posible egin duzuen guztioi.

## AGRADECIMIENTO

Muchas gracias a todas las artistas que forman parte de la exposición, y muchas gracias también a todas las personas que han hecho posible, un año más, este proyecto.

# "emakumea eta hitza"

emakume artisten erakusketa

## Orduategia:

asteartetik ostiralera  
larunbatetan

18:00 - 20:30

12:00 - 14:00

18:00 - 20:30

igande eta jaiegunetan

12:00 - 14:00



AROZTEGI  
ARETOA



Bergarako  
Udala

